

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Onan Low Cost proiektuaren funtzioamentu egokirako eta arrakasta izateko hurrengo baliabideak beharrezkotzat identifikatu ditugu:

- **Baliabide fisikoak**

Ondasun higiezinak: lokala eta negozioa martxan egoteko bestelako ibilgetu eta materialak. Saltokia Leioa herriko Sabino Arana 80 kalean dagoen 100m²ko lokala da.



Enpresan daukagun materialari dagokionez, dendaren funtzionamendurako beharrezko baliabideak hurrengoak dira: konputagailuak, datafonia, dirua gordetzeko kutxa, mahaia, altzariak, inprimagailua eta telefonoa.

Noski ahaztu gabe gure negoziaren funtsa, biltegiatuta eta saltokian kokatuta dauden salgaiak ere behar beharrezkoak ditugu. Hauek salduz lortuko baititugu beharrezko diru sarrerak.

- **Baliabide intelektualak**

Bezeroen eta hornitzaileen datu-baseak aipagarri dira atal honetan. Bertan beraiei buruzko informazio erabilgarri eta interesagarria bilduko dugu.

Langile taldearen esperientzia, motibazioa eta abileziak ere gure proiektuaren funtsa dira.

- **Giza baliabideak**

Proiektuan pertsona asko dira beharrezkoak bere arrakastarako. Alde batetik bezero eta hornitzaileak ditugu eta bestetik lan taldea.

Lau ekintzailek osatzen dugu proiektu hau:

Nahia: hornikuntza funtzioaz arduratuko da. Hornitzaileen aukeraketa, produktuek erosketak eta biltegiaren kudeaketa eramango ditu.

Alazne eta Nere: saltokian lan egingo dute, bertan beraien eginkizuna bezeroei arreta ematea eta dendaren egunerokotasuna eramatea da. Beraiek ere marketin arloan lan egingo dute: sare sozialak, publizitatea eta merchandisinga.

Olatz: negozioaren kudeaketa ekonomikoa eta administratiboaz arduratuko da.

- **Finantza-baliabideak:**

Negozioa martxan jartzeko orduan inbertsio handia egin beharko dugu produktuak erosteko. Horretarako funtsezkoa dugu banketxeari eskatuko diogun 50.000€ko mailegua ahalik eta baldintza egokienetan lortzea.